

ESZEDENTZIA HARTZEAGATIK DAUDEN LAGUNTZAK ESKATZEKO ESKABIDEAREKIN BATERA
AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

JAIOTZAGATIK ETA ZAINTZAGATIK DAUDEN BAIMENAK PAREKATZEA

Ez dira a), b), c) eta g) letretan adierazitako agiriak aurkeztu beharko, baldin eta eskabideko 4. orrialdean elkarreragingarritasunetarako baimena eman bada

a - Eskatzailearen eta ezkontidearen edo egungo bikotekidearen nortasuna egiaztatzea: NANaren, atzeritarren nortasun-txartelaren edo pasaportearen fotokopiaren bidez egiaztatzea daiteke.

b - Eszedentzia zein seme-alaba zaintzeko hartu den, harekin zer harreman duen egiaztatzea: filiazio-, adopzio-, edo tutoretza-harremana. Familia liburuaren, jaiotza-agiriaren fotokopiaren bidez eta abar egiaztatzea daiteke.

c - Eskatzailea erroldatuta dagoela egiaztatzea (errolda-ziurtagiri eguneratua), bizilekuan bizi diren lagun guztien zerrenda duela. Udalerrian noiz erroldatu zen adierazi beharko da. Ez da onartuko laguntza-eskaera aurkeztu den eguna baino hilabete lehenagoko errolda-ziurtagiririk.

Eskatzailea eskabidea aurkeztu aurreko urtean ez bada bizi izan edo ez bada jarraitutasunez erroldatuta egon Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerrian, egungo errolda-ziurtagiriaz gain (ziurtagiri horretan eskatzailearekin batera bizi diren guztiak agertu beharko dira), azken hamar urteetan bost urtez jarraian EAEko udalerriren batean erroldatuta egon dela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Elkarreragingarritasunerako baimena eman badu, adierazitako aldi horietan non erroldatuta egon den adierazi beharko du.

d - Gizarte Segurantzaren baja hartuta dagoela adierazten duen partearen kopia, zeinetan seme-alabak zaintzeagatik eszedentzia hartuta dagoela egiaztatu behar den.

Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, egiaztatzen duena diruz lagundu daitekeen jarduketak hasi aurreko hilabeteko kotizazio-oinarria, eta adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko prestazioa zenbat denboraz jaso den.

Gizarte Segurantzaren autonomoen araubide berezian kotizatzen duten langile eskatzaileei ez zaie eszedentziagatik baja eskatuko.

Norberaren kontura lan egiten duten langileek edo autonomoek egiaztatu beharko dute kontratatutako langilea Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela, bai eta diruz lagundu daitekeen jarduketak irauten duen bitartean kontratatutako pertsona horren kotizazioa zenbatekoa den ere.

Era berean, sistema publikoa osatzen duen gizarte-prestazioen sistema interkooperatibo bat daukaten kooperatiba-sozietateetako bazkide langileek edo lan-bazkideek kooperatiba-enpresaren ziurtagiria aurkeztu behar dute, non honako alderdi hauek adieraziko baitira: eskatzailea seme-alabak zaintzeko eszedentzian dagoela, zenbatekoa den eszedentzia-aldia eta zein den diruz laguntzeko moduko jarduketak hasi aurreko hilabeteko kotizazio-oinarria aipatutako sistema interkooperatiboan.

e - Gizarte Segurantzaren agiria, egiaztatzen duena beste gurasoa (eskatzailea ez dena) alta emanda dagoela eta diruz lagundu daitekeen jarduketak irauten duen bitartean lanean diharduela bere kontratuari dagokion lanaldi osoan, kontratuaren ehunekoa zehaztuta bere jardun-sektoreko lanaldi osoarekiko.

f - Hirugarrenaren altaren fitxa, eskatzailearen bankuko datuak dituela. Eskabideari erantsita dauden ereduetatik bat aukeratu beharko da, banku-erakundea hauekoren bat den edo ez kontuan hartuta: KUTXABANK, LABORAL KUTXA, BANKOA, CAIXABANK, BBVA, BANCO SANTANDER, POPULAR, SABADELL edo CAJA RURAL DE NAVARRA.

Eskabide hau aurkeztu ondoren, laguntzak kobratzeko banku-kontuaren zenbakia aldatu dela jakinaraziz gero, laguntzak kudeatzen dituen organoak egingo du aldaketa, eta, hortaz, aldaketa ez da berehalakoa izango.

g - Izatezko bikotea izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria.

h - Eskatzailearen ezkontza deuseztatu bada, edo eskatzailea banandu edo dibortziatu bada, eszedentzia eskatzeko arrazoia den seme edo alabaren zaintza eta babesa esleitzen dion ebazpen judizialaren fotokopia.

Ez da onartuko gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzarmenik, baldin eta dagokien berrespen-epairik ez badute.

i - Familia gurasobakarren kasuan, eskatutako eszedentziaren edo lanaldi-murrizketaren bidez zaindu behar den semea edo alaba ekonomikoki eskatzailearen mende soilik dagoela egiaztatu beharko da